



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Ohikoa

Eguna: 2020.08.31

Ordua: 18:00tan

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

- Dabid Iturria Almandoz jn, EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn, EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and, EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn, EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn, EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn, EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn, EH Bildu.

Bertaratu ez direnak: Inor ez.

Idazkaria: Ainara Velez Ara

AZTERGAIK:

1. AURREKO AKTAREN ONESPENA

Idazkariak jakinarazten du 2020/05/21ko aktaren 4. Puntua, 2019 Aurrekontuen itxierari dagokionean akats bat dagoela, eta kontuak berriz itxi behar direla dagokion prozedura jarraituz. Ondorioz puntu hori aktan bertan behera uztea gomendatzen du, hurrengo bilkuran berriz akordio bera hartuz. Udalkideak aho batez puntua bertan behera uztea adosten dute. 2020/07/07ko akta aho batez onartzen da.

2. OINEZKO BIDEEN MOLDAKETEN "PDR" ADJUDIKAZIOA.

Kontratazioa abiatu zuen plegu erregulatzailerak 2020/07/07an onartu egin zen ohiko osoko bilkuran. Prozedurara bi enpresa aurkeztu dira eta biak onartuak izan dira. Ikusirik prozeduraren emaitzak eta jakinda Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legeak azaltzen duena, ohiko osoko bilkurak erabaki du:

1.- I.M ARRIXKO IGELTZERITS S.Lri esleitzea kontratua, berea izan baita, eskaintzarik hoberena. 14.600 BEZa kanpo eta 10 egun gutxiagoko exekuzio epea.

2.- Esleipenaren eraginkortasuna 10 egun naturalez eten eginen da, adjudikazioaren jakinarazpena igortzen den egunetik kontaktzen hasita. Esleipen egintza eten eginen da kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bat aurkezte hutsagatik, erreklamazio hori ebatzi arte.

3.- 7 eguneko epean esleipendunak, kontratuaren betebeharrak betetzeko %4 bermea jarri beharko du.

4.- Kontratua agiri administratiboan formalizatuko da 7 egun naturaleko epean, esleipenaren etenaldia amaitzen denetik aurrera.

5.- Akordio hau prozedura honetan parte hartu dutenei jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

3. "MEDIKUN ETXEKO" ALOKAIRUAREN ADJUDIKAZIOA.

Ikusirik prozedura arautzen duen plegu arautzailea 2020/07/07an onartu egin zela eta prozeduran pertsona bakarra aurkeztu zela. Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legeak azaltzen duen, ohiko osoko bilkurak erabaki du:

1.- Estibaliz Iparraguirre Madariaga andreari esleitzea kontratua, 410,00€tan egindako eskaintzaren arabera.

2.- Esleipenaren eraginkortasuna 10 egun naturalez eten eginen da, adjudikazioaren jakinarazpena igortzen den egunetik kontaktzen hasita. Esleipen egintza eten eginen da kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bat aurkezte hutsagatik, erreklamazio hori ebatzi arte.

3.- 7 eguneko epean esleipendunak, kontratuaren fidantza jarri beharko du 325,00€koa dena, aurretik aurkeztutako fidantza itzuli ez denez, 5€ fidantza bat aurkeztu beharko du.

4.- Akordio hau interesatuari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

4. NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA FNMTren ARTEKO HITZARMENARI ATXIKITZEA, TOKI ENTITATEAEK ETA HAIEN MENPE ERAKUNDE AUTONOMOEK SINADURA ELEKTRONIKOA ZIURTATZEKO ZERBITZUA EMATEKO.

Ikusirik Administrazio Elektronikoa indarrean sartu behar dela 2021an, Nafarroko Gobernuak eta FNMTk daukaten hitzarmena Ziurtagiri elektronikoak lortzeko erraztasunak ematen dituenak.

Osoko bilkurak erabaki du:

- 1.- Hitzarmenari atxikitzea.
- 2.- Alkatea ahalbidetzea hitzarmena sinatzeko.

5. ARANTZAKO HIRIGINTZA ORDENANTZAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

Hirigintzako ordenantzaren hainbat aldaketa egitea proposatzen da, gaiak eztabaidatu ondoren eta udalkideek beraien iritzia adierazi ondoren gaiari buruz.

Udalbatzak erabaki du:

- 1.- Hirigintza ordenantzaren hainbat aldaketei hasierako onespena ematea.
- 2.- Akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

6. PLANTILLA ORGANIKOAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

Ikusirik Joseba Compais Silva abokatuak egindako txosten juridikoa eta 2020 aurrekontuan, diru nahikoa dagoela

Kontuan izanik aplikagarria den araubideak ezartzen duena, osoko bilkurak aho batez erabaki du:

- 1.- Hasierako onespena ematea 2020ko Plantilla Organikoaren aldaketari.
 - Araubide juridikoa: Administrazio.- kontratua.
 - Lanpostua: Idazkari-Kontuhartzailea.
 - Maila A.
 - *Bateraezintasun* osagarria: %35.
 - Jardun luzapenaren osagarria : % 5.
 - Osagarria: %3, 72.
- 2.- Espedientea *jendaurrean* jartzea 15 eguneko aldi, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarki Taulan, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ditzan.
- 3.- Ohartaraztea jendaurreko epealdian *erreklamaziorik* ez balego, behin betiko *onetsizat* hartu da Plantillaren aldaketa.

7. ALKATEAREN EBAZPENAK


85/2020 – 109/2020 arteko ebazpenak berretsi egiten dira.

8. ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez dira egiten.

Beste aztergairik izan gabe 21:00ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,
Dabid Iturria Almandoz



IDAZKARIA,
Ainara Velez Ara

